txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Behin hitz egiten hasita

«*Operación Triunfo* PPk defendatzen dituen balioen erakusgarri da: hezkuntza, ahalegina, norbere buruaren hobetzea, adiskidetasuna, familia... Eta astialdirako beste aukera bat eskaintzen die Espainiako gazteen penarik handienetako bati, haurren eta gazteen alkoholismoari. (...) Errebalida bai ala ez hitz egiten ari garen honetan, gutxieneko zentzunetik urrun samar dabiltzan kritikak ari gara jasotzen alderdi politiko batzuengandik, eta saio honek erakusten digu Espainiako gizarteak ahalegina egunetik egunera lan egitearen aldeko apustua egiten duela, eta ahalegin hori errebalida izan daitekeela». RTVEko kontrol batzordean PPk duen eledun Alejandro Ballesterorenak dira eleok, eta hitzoi esker ulertu dugu atzoko TVEko albistegiak *Operación Triunfo*-rekin zabaldu izana. Behin hitz egiten hasita, baina, argiago ari zitekeen PPkoa. «Argi dago hainbat euskal herritarrek ez luketela zereginik gure akademian, guda abestiak besterik ez dizkietelako erakusten eskolan» esan zezakeen, adibidez; edo, «immigranteak hona delituak egitera soilik datoz, lehiaketan bakarrak ere izena ez eman izanak erakusten duenez». Balioak biribiltzen hasita...



Alejandro Ballestero, PPko eleduna RTVEko kontrol batzordean, atzoko prentsaurreko agerraldian.

EUSKADI IRRATIA



Partaideetako batzuk.

Euskaltegien arteko bigarren txapelketa 'Lauretan babel' irratsaioan

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

EITBko irratiek eta HABEk elkarlanean sortutako euskaltegien arteko bigarren txapelketa martxan da. Euskadi Irratiko *Lauretan babel* irratsaioan emango dute lehiaketa asteazkenetan, 16:00etatik 19:00etara. Gorka Etxebeste Euskadi Irratiko programazio buruaren arabera ekimen honek helburu garbia du: «Euskara erabiliz eta euskaraz jolas eginez une gozoa igarotzea, eta, bide batez, euskara ikasten ari direnen ahalegina txalotzea, ordu batzuetan irratian protagonista bilakatuz». Astero, talde bakoitzak, irakaslearekin batera, lau proba egin beharko ditu. Proben nondik norakoak, euskaltegien argazkiak, emaitzak eta audio grabazioak *www.eitb.com* helbidean izango dira. Iazko finalean Gernikako Aita Villasante udal euskaltegia izan zen garaile, Lazkaoko Maizpide barnetegiaren aurretik. Aurten hamalau euskaltegik hartuko dute parte eta finala ekaineko lehenengo astean egingo da.

TVE1. Hego Euskal Herrian 719 mila lagunek ikusi zuten 'Operacion Triunfo'-ko finala

Futbola kenduta, saio ikusiena

Une batzuetan 15 miloitik gorako jendetza bereganatu zuen astelehen gaueko emanaldiak

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Azkeneko urteetan futbol partidak izan dira telebista emanaldi ikusienak Hego Euskal Herrian. 1993tik hona partiduren bat izan da urtean audientzia gehien bildu duena (1995ean eta 1997an izan ezik). Eta horien artean duela bi urteko Txapeldunen Ligako finala izan zen ikusiena (Real Madril eta Valentziaren artekoa). 772.000 euskal herritarrek ikusi zuten lehia hura.

Asteleheneko *Operación Triunfo* saioko finala Hego Euskal Herriko historiako bigarren emanaldi ikusiena izan dela esan dezakegu. TVEko iturriek eskaini diguten datuen arabera 719.000 pertsona izan ziren batez beste saioa ikusten Nafarroa eta EAE artean. Pantaila kuotei dagokionez, aurreko urteetako markak hautsi dira. Izan ere, saioak iraun zuen 160 minutuetan %63,2ko audientzia izan zen EAEn eta %65,1ekoa Nafarroan. Goizaldeko 01:30ean hiru irabazleek eta Ninak eginiko saiotxoak, bestalde, %73,1eko pantaila kuota lortu zuen Nafarroan.

Espainian, bestalde, %68ko pantaila kuota izan zuen finalak batez beste (12.873.000 ikusentzule). Marka hori soilik iazko Bayern Munich eta Valentziaren arteko Txapeldunen Ligako finalak gainditu du. Gainera, une batzuetan 15.356.000 ikusentzulera iritsi zen audientzia. Gauerdian %80ko pantaila kuota gainditu zuen *Operación Triunfo*-k (orain arte inork lortu gabekoa).

Atzo hainbat egunkarietako azalean agertu ziren lehiaketako irabazle David Bisbal, Rosa Lopez eta David Bustamante. Argitzeko dago asteleheneko finaleko markak gainditu diren. Datorren otsailaren 18an hamasei lehiakideek Disneyko abestiak kantatuko dituzte gala berezi batean. Otsailaren 25ean Eurovisioneko kanta hautatzeko gala izango da. Martxoaren 4an, hiru finalistek aipatu kanta abestuko dute. Eta martxoaren 11n ikus-entzuleek erabakiko dute zein edo zeintzuk doazen Eurovisionera.



Carlos Lozano aurkezlea lehiaketako hiru irabazleekin: David Bisbal, David Bustamante eta Rosa Lopez.

Urte bakoitzean EAE-n gehien ikusitako saioa

Emanaldia	Katea	Eguna	Audientzia
Futbola (Espainia-Danimarka)	TVE1	*1993-11-17*	% 26,8
Futbola (Espainia-Bolivia)	TVE1	*1994-06-27*	% 35,4
Farmacia de guardia (telesaila)	A3	*1995-12-18*	% 31,6
Futbola (Espainia-Ingalaterra)	TVE1	*1996-06-22*	% 32,2
Médico de familia (telesaila)	T5	*1997-12-23*	% 29,4
Futbola (Espainia-Bulgaria)	TVE1	*1998-06-24*	% 33,5
Futbola (Manchester-Bayern)	TVE1	*1999-05-26*	% 22,8
Futbola (Real Madril-Valentzia)	TVE1	*2000-05-24*	% 59,9
Futbola (Alaves-Liverpool)	TVE	*2001-05-16*	% 61,7
Operación Triunfo (finala)	TVE1	*2002-02-11*	% 63,2

A. PEÑALBA

Gonzalez Ferrari: «Gutxienez beste bi denboraldi izango dira»

Lehiaketako sei finalistei zein ekoiztetxerekin disko bat grabatu behar duten adierazi zieten astelehen gauean. Hiru irabazleei, gainera, aurrerapen moduan 90 mila euroko txeke bana eman zieten.

RTVEko zuzendari Javier Gonzalez Ferrarik, berriz, adierazi du arrakasta familia osoak jarraitzeko moduko entretenimendu saio bat egiteari esker lortu dela. «Programa egiteko erabakia hartzea zaila izan zen uztailean, baina gogor egin genuen apustu. *Operacion Triunfo*-ri gutxienez beste bi denboraldi gelditzen zaizkio» dio Ferrarik.